



# Zakarrontziko janaria

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.

## HELBURUA

- Baliabideen erabilera egokia eta aurrezpena sustatzea.

Kontsumo gizarteak jaki aukera aparta eskaintzen digu; horietako asko itxura erakargarrikoak dira eta, sarritan, arbuiatzen zailak.

Erosketak egitera goazenean, hasieran pentsatu baino askoz gauza gehiago sartzen dugu organoan, horietako asko ezertarako behar ez baditugu ere.

Jokabide horrez eta bere ondorioez ohartarazten saiatuko gara, bai kontsumoaren ikuspuntutik, bai ingurugiroari dakartzkion ondorioak aintzat

hartuz (adibidez, kontsumitzen ez ditugun jakiek sorrarazten duten zabor kantitate eskergea). Zenbatespenen arabera, Estatu Batuetan ekoizten diren jakietarik %25 supermerkatuko edo etxeko hozkailuan galtzen da alferrik. Bestalde, kontuan hartu behar da nekazaritza eta abeltzaintza direla ingurugiroari gehien eragiten dioten giza jarduerak.

Gurasoen laguntzaz, honako fitxa erraza osatzea proposatzen dugu.

### Eguna

### Alferrik galdutako jakiak

Astelehena

Asteartea

Asteazkena

Osteguna

Ostirala

Larunbata

Igandea

Txikientzat, fitxa ondoko marrazkiekin osatu daiteke.



Banaka lortutako datu guztiak biltzeko kartel bat egin daiteke (fitxa honen kopia handitua izan daiteke).

Fitxa bete ondoren, guztion artean aztertu ahal dira, honelako alderdiei erreparatuz:

- Datuetan, zer jaki azaltzen da maizen?
- Zer egin dezakegu hori gerta ez dadin?
- Zer onura dakarkigu geuri gauza gehiegi ez erosteak?
- Eta zarama bilketari?
- Eta ingurugiroari?